



17/2018, uztailaren 17koa

EBAZPENA

Giza Baliabide eta Administrazio Kudeaketa Zerbitzua

Ebazpena, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoko dotazioko buru lanpostuak hornitzeko deialdiarekin lotutako lanpostuak argitaratzeko agintzen duena.

Lehendakaritzaren 2017/19 azaroaren 29ko Ebazpenak Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren administrazio bereziaren eskalan, suhiltzaileen azpieskalan, azpieskala operatiboan, kabo kategorian barne sustapeneko sistemaren bidez eta lehiaketa-oposizio prozedura bidez karrerako funtzionario sartzeko oinarriak onartu zituen.

Lehiaketa eta oposizio faseak amaituta, Deialdiko Epaimahaiak fase horiek gainditu dituzten izangaien behin betiko zerrenda argitaratu du, eta Lehendakaritza hori helarazi dio.

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoa betetzeko, deialdiarekin lotutako lanpostuen zerrenda argitaratu behar da, destinoarekin eta, hala badagokio, lanpostu horretarako eskatutako derrigorrezko hizkuntza eskakizunarekin, eta 5 egun baliodun egongo dira onartutako izangaien behin betiko zerrendan hautaketa-prozesuko lanpostuekin lotutako ordena-zenbaki berdinarekin edo txikiagoarekin ageri diren pertsonen euren lehenespen ordena adieraz dezaten eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskakizunak betetzen dituztela erakusten duten egiaztagiria aurkez ditzaten.

Haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT



Lehen. Deialdiarekin lotutako lanpostuen zerrenda onartzea, destinoarekin eta, hala badagokio, lanpostu horretarako eskatutako derrigorrezko hizkuntza eskakizunarekin, eta bost egun balioduneko epea ematea onartutako izangaien behin betiko zerrendan hautaketa-prozesuko lanpostuekin lotutako ordena-zenbaki berdinarekin edo txikiagoarekin ageri diren pertsonen euren lehenespenei ordena adieraz dezaten eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskakizunak betetzen dituztela erakusten duten egiaztagirak aurkez ditzaten.

Bigarren. www.araba.eus/PortalEmpleo/ web orrian argitara dadin xedatzea.

Hirugarren. Bost egun balioduneko epea ematea hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako eskakizunak betetzen dituztela erakusten duten egiaztagiri hauek aurkez ditzaten, Erakunde Autonomoan ez badaude, betiere:

- a) Erakunde Autonomoko karrerako funtzionario izatea.
- b) Suhiltzaile kategoriako azpieskala operatibokoa izatea (C2 taldea).
- c) Erakunde Autonomoaren suhiltzaile kategorian jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan egotea.
- d) Eskakizunak aurkezteko azken egunerako edozein eskala operatibotan hiru urte osatuta edukitzea.
- e) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo horren parekoren bat edukitzea.
- f) C+E gidabaimenak edukitzea.

Gasteizen, 2018ko uztailaren 16an.



María Pilar García de Salazar Olano
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren presidentea

Francisco Javier Carro Iglesias
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoaren zuzendari kudeatzailea



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde
Autonomoa
Organismo Autónomo Bomberos
Forales de Álava

Presidentetza
Presidencia

17/2018, uztailaren 17koa

I ERANSKINA

DEIALDIAREKIN LOTUTAKO LANPOSTUAK

Lanpostuaren kodea	Lanpostua	Udalerria	Kategoria
1105	002 Dotazioko burua	Laudio	Kabo
1105	003 Dotazioko burua	Laudio	Kabo



